

CURIOSIDADES BASCONGADAS.



El primer melodrama euskarodel siglo XVIII,

por la poetisa azcottiana Luisa.

PRÓLOGO.

De este melodrama sacro, ú opereta pastoril en bascuence, publicada en 1762, con el título de *Gabon sariak* se dió alguna breve noticia, aunque no completa, en 1883, en la EUSKAL-ERRIA, tomo VIII, pág. 306, donde nos dice el preclaro fundador y primer Director de esta Revista D. José Manterola (Q.E.P.D.), que poseía un ejemplar de dicho opúsculo, cuyo título completo allí mismo estampaba, diciéndonos ántes que es «obra indudablemente del mismo insigne Conde de Peñaflorida,» y añadiendo luego que «la daría á conocer íntegra á los lectores de la EUSKAL-ERRIA, en cuanto le permitiesen otros originales de mayor perentoriedad.»

Ya que por causas ajenas á su voluntad no fué permitido cumplir su pública promesa al ilustre finado, justo es que, aunque haya pasado un lustro entero sin hablarse ya de aquella rarísima obrita euskara, se cumplan sus deseos y los de tantos bascófilos, reproduciéndola con esmero en esta Revista.

Mucho dudamos que el ejemplar que poseía el Sr. Manterola esté completo en sus primeras hojas hasta la página nueve, donde empieza la primera parte del melodrama, ó sea *Lenengo otsaldia*; por cuanto dice, que el insigne Conde es el autor de la obra; pues nos consta

quiénes tuvieron la mayor y la menor parte en ella, por la amable y graciosa dedicatoria segunda á sus bienhechores, de la misma autora, poetisa y cantora, la cual, despues de la primera á la Virgen de la Soledad de la Misericordia de Azcoitia, empieza á hablar en la página 5.^a con estas palabras: «Luisa Miserikordia-kuak ongiñ guziaz gabon, urteon ta berri-on. Nere biotzeko ongiñocho maiteak.» Allí nos dice, hablando de «Aurten gure Azkoitiko musika aingeruzkuak kantatuko dituan iru kanta-aldiak»; «Koprarik geienak nere burukoak dira; ta bost gaubela ta izerdi gozo kostaz bazaitz ere,» etc. Allí nos cuenta lo que le ayudó en las seguidillas de la primera parte y en las arias y recitado ó copla mayor de la segunda, un tal sábio y bondadoso señor *Martin Beltz*. Confiesa tambien que la música no es suya; y que la ha procurado de los maestros más afamados de la provincia, nombrando como á los principales cooperadores á solos dos; al antiguo y guapo organista *Melon* y á *Lorencho Dancharia*.

Con todo, por la erudicion sagrada, que en sus versos y notas marginales ostenta nuestra Luisa, bien se puede conjeturar que se valdria tambien de las luces é instrucciones de varias personas ilustradas, tanto eclesiásticas como seglares. que la rodeaban y florecian entónces en Azcoitia, como atestigua el P. Navarrete en la vida del P. Mendiburu (pág. 116, ubi multi sunt nobiles et eruditi viri), hallándose bien cerca y frente á su Casa de Misericordia en su palacio de Inchausti, el mismo sábio Conde Munibe, y no muy lejos en los colegios de la villa y de Loyola los PP. Larramendi, Cardaberaz, Mendizabal y tantos otros eruditos en sus cosas.

Podrá en esta obrita juzgar por sí mismo el curioso literato bascófilo, del bascuence que se hablaba en el valle de Iraurgi á mediados del siglo XVIII; del lenguaje, estilo, bellezas é imperfecciones literarias, que se hallan en las dedicatorias, en la advertencia, ó *aditakia*, en las dos cantatas y égloga pastoril que abrazan las tres *otsaldiak* ó *kantaldiak* de la donosa Luisa, cultivadora de la poesia euskara, digna precursora de D.^a Vicenta Moguel, de D.^a Maria Ignacia de Azcune, de la Arrese y de la Azcue; gozándose tal vez del bello apostrofado del recitado, de las alegorias de la égloga, y de la graciosa descripcion de la edad de oro, ó *denbora urrezkoa*, en las últimas *jostalluak*.

Aun para ver los progresos de la tipografía en nuestro país, no deja de tener algo de interés este cuaderno basco, de 36 páginas en

4.º, impreso en la Misericordia de Azcoitia en 1762. Aparecen en él variedad de letras mayúsculas, minúsculas y bastardillas. Tal vez sean más antiguos algunos grabados en madera algo más bastos, que figuran en el mismo, como el florón de la última página 36, la imágen de la Soledad y un angelote con la letra mayúscula Z en un libro, que se hallan en la página 3, y las armas de Guipúzcoa de la página 8, en cuyos lados se ven un hombre y una mujer, con sus respectivas porras, teniéndola el hombre en la mano derecha y la mujer en la izquierda; y es de notar también que el Rey que se halla coronado y sentado, tiene además del cetro en la mano derecha, un mundo ó globo con su cruz encima á la izquierda, entre la otra mano y la rodilla real. Esta observación última nos permite abordar una pequeña cuestión ó curiosidad heráldica, preguntando á los eruditos euskaristas, anticuarios y maestros de blason, ¿por qué en algunas de esas armas más antiguas de Guipúzcoa se ven hombre y mujer, (como representación de los naturales ó de la familia bascona) y el globo en la izquierda del rey, y no se pintan ni globo ni mujer en las armas guipuzcoanas de publicaciones más modernas?

Réstanos advertir, que en esta reproducción de *Gabon-sariak*, hemos eliminado todas las erratas de imprenta, y corregido con esmero muchas faltas de ortografía, valiéndonos al efecto de un ejemplar muy completo del librito de Luisa, que el año pasado nos legó generosamente su dueño (Q.S.G.T.) D. Benigno de Orbegozo, excelente bascongado de Bilbao, poseedor del bascuence, muy amante de las glorias euskaras, aun en sus viajes de América y Tierra Santa, y suscriptor constante de esta Revista.

UN BASCONGADO.

(Se continuará.)



CURIOSIDADES BASCONGADAS.



El primer melodrama euskaro del siglo XVIII,

por la poetisa azcoitiana Luisa.

(CONTINUACION).

GABON-SARIAK | EDO | AURTENGO GABONETAN, | AZKOITIKO ELEIZA NAGU-
SIAN KAN | TATUKO DIRAN GABON KANTAK EDO | OTSALDIK. | PUERNATUS
EST NOBIS, | VENITE ADOREMUS. | AZKOITIN | MISERIKORDIAN MDCCLXII.

Azkoitiko Miserikordiako Ama Birjiña Soledadekoari.

ANDREA:

Zure mende gozoan bizitzeko zoriona degunok, zure mendean ta egapean ipiñi ere bear ditugu gure gauza guztiak. Argatik gaur argierazotzen degun papelcho au, zure mendean ipintzen degu, ta ala artu ere bear dezu zuk; bada batetik gurea da, ta bestetik guk gure onginaierak egiten dizkuen ongiteakgatik eman nai diegun saribat da: ta abek zure eskuetatik bialtzen dizkuen-azkero beren ongiteak, ta ondasunak, esku orietatik biurtu ere nai diegu sari-au. Arzazu bada, gure Ama gozoa, nai oi dezun ongiroarekiñ papel-cho au; eman egiozu zure grazia, ta adierazo egiezu gure ongiñ guziai gure borondate ona, ta eziñ beste moduz pagagintzakeala, ezpada arekin, ta zuri

otoitzeak zure Seme Jauna-gandik erdietsi dezazula aientzat guzien-tzat, osasuna, bakea, ondasunak mundu onetan, zure ume zurchoetan gasta ditzaten, ta bestean sekulako bizitza; ala eskatzen dizu, Andrea, zure oñetan umilki auspez etzinik.

Miserikordiako echeak.

**Luisa Miserikordiako-ak ongiñ guziaz gabon, urte-on,
ta berri on.**

Nere biotzeko ongincho maiteak. Igaroko urtean gabon-saria pran-ko eman badidazue ere, orra aurten, aurrea artuta, nun neuk ematen dizuedan: ¿Ta nolakoa ala ere? Zuek geienez gabon egiteko aza-bu-rubat, edo bakallao puska batekiñ askidatu, ta kunplitu dezue nere-kiñ; baña nik zuentzat berariaz inprimierazo ditudan kantacho, edo otsaldi eder auekin erregalatzen zaituet.

Orañ zuek esango dezue zer apetek, edo eroaldik emandidan one-tarako? Ara bada, adiezazue.

Igazko gabonetan ekusinituan gure echean makina bat gabon-kan-ta inprimitu: batzuek Bilbao-koak zirala, besteak Madril-goak, Kariz-koak, ta eztaikit nun añ urrutietako batzuek; ta adios nun berealañe gogoak emanzidan; ¿zer! ¿beste iñun diran eleizaak inprimierazotzen ditue, ateratzen dituen kantaak, (azkenik Bilbaoko San Praskuko Praille gajoetaraño) ta gure Azkoitiko Eleiza ederrean kantatzen dira-nak, illunpean gelditu bear debe? Nundik nora? Ezdebe beste erdera mordollosko abek ainbat merezi? Ez bada, Jainkoak naibadeu; ta da-torren urtean, bizi banaiz, soñean daramadan gona au salduko badet ere, inprimitu bear ko debe deamuchoetan. Orra bada, esan da egiñ, nun inprimierazo ditudan aurten gure Azkoitiko musika aingeruzkoak kantatuko dituan iru kanta-aldiak.

Jakiñ ere naiko dezue, norzaz baliatu naizan koplak ta beren so-ñua ateratzeko, ta jakiñ-gura geiegicho bada ere, ez dizuet ezer isildu nai. Koplarik geienak nere burukoak dira; ta bost gaubela, ta izerdi gozo kosta bazaitzit ere ondo enpleatutzat ematen ditut diranak: Egia da (ez diot iñori ezer kendu nai) Martin beltz gizagajoak, mesederik asko egiñiz, lagun eginda batez ere, segidilla, ta arako *aria* edo *kopra*

andi aetan, bada sekula alakorik nola ekusi ere ez neban, eziñ asmatu neban; ta ark berriz, nola iñunziak egiten ere dakian, asko daki, ta gizon jakintsubat da. Soñua edo koplea ez da nerea; ezdakit orrenbeste; baña Probinzian dira maisurik pamatuenai eragin diet. Melon anchiñako organista buapo ark, ta Lorencho danchariak, biak alkar arturik, atera debe.

Ala ere ez dide kantatzen bentajarik eramango, ez batak eta ez besteak; ta ala, ikasi nai deban guzia, ez dauka nigana etortzea baño, ta nik berealaşe erakutsiko diot; bada eztarri garbi garbia ezbadet ere, belarriak galantak ditut. Onen besterekiñ agur; bada kanpaeak bada-rauntza ya, gabon egiteko, gure deiez.

(Se continuará).



CURIOSIDADES BASCONGADAS.

El primer melodrama euskaro del siglo XVIII,

por la poetisa azcoitiana Luisa.

(CONTINUACION).

LENENGO OTSALDIA.

Tonadillea.

Sekulako ikaraturik
Nago ikusi dedanaz;
Ez bait du iñork sinistuko
Bakarrik nere esanaz.
Bada ni ere
Neure ikusirik,
Egon naiz eziñ
Sinisturik.

Gure erriko sartzayeran
Dagoan Abel-eche ura
Aiñ dago argia, ta ederra,
Zer dirudi Zerua.
Baña au ez da ezer ere
Beste gauzeen aldean
Ez da ez ainbeste mirari
Ekusi iñoz lurrean.

Bada ni ere, etc.

Aditu nai dituztenak
Jarbitez nere aldean
Esango ditut diranak
Segidillacho auetan.
Baña utzi bulla
Alde batera;
Chit, chit, ya noa
Abiatzera.

Segidillaak.

Aurcho zoragarri bat
Or portalean,
Otzak kil, kil, kil, datza
Lasto gañean.
Ai, aur ederra!
Ai, aur guria!
Ai, aur gozoa!

Ai, aur eztia!
Otzak, kil, kil, kil, datza
Lasto gañean.

Belen guztian
Eztute iñun aurkitu
Ostaturikan.

Ai, aur ederra, etc.

Asto idi batzuek
Etziñik auspaz,
Zerbait berotzen dute
Beren arnasaz.

Ai aur ederra, etc.

Errukiago
Dira abereak berak
Gizonak baño.

Ai, aur ederra, etc.

Chit emakume eder bat
Alboan jarrita
Zoro bihurturik dago
Ari begira.

Ai, aur ederra, etc.

Bai, biak ere
Ederrean alkarren
Antza badebe.

Ai, aur ederra, etc.

Andre eder au aur onen
Ama andre izanik,
Jaio zanean bezela,
Dago orregatik.

Ai, aur ederra, etc.

¡Zer miraria!
Ama izanik, donzella
Bait da garbia.

Ai, aur ederra, etc.

Aur eder onen aita
Ez da gizona
Da espiritu garbi bat,
Da Jaungoikua.

Ai, aur ederra, etc.

Argatik bada
Mirari aiñ andi au
Gertatu bait da.

Ai, aur ederra, etc.

Maiz ekusi dezute
Kristal garbian
Nola sartu ta erten
Oi dan argia.

Ai, aur ederra, etc.

Ausirik gabe,
Ta loirikan batere
Utzirik gabe.

Ai, aur ederra, etc.

Gisa-artan Andre onen
Sabel garbian
Sartu, ta erten izanda
Jainkoaren itza.

Ai, aur ederra, etc.

Aren gisara
Mancha gabe, ta osorik

Gelditzen dala.

Ai, aur ederra, etc.

Agurecho bat ere
An dago aurchoz,
Eziñ dauka negarra
Pozaren pozaz.

Ai, aur ederra, etc.

Iñoiz malkoak
Oi dira farra baño
Gozoagoak,

Ai, aur ederra, etc.

Jaunak esleiturik
Bere ordekotzat,
Aurrak aita ez badu ere
Dauka artakotzat.

Ai, aur ederra, etc.

Zorionekoa
Izatea alako aurraren
Aita ordekoa.

Ai, aur ederra, etc.

Beste gizakumerik
Aurkitzen ez da
Aurcho onen konpañia
Eztitsu onetan.

Ai, aur ederra, etc.

Mundu zoroa!
Ez du sekula jakiñ
Zer dan gauza ona.

Ai, aur ederra, etc.

Bañan ez zaio palta,
Ez konpañia,
Bada berekiñ dauka
Zeru guzia.

Ai, aur ederra, etc.

Argatik naski
Dabil mundua igasi
Toki artatik.

Ai, aur ederra, etc.

Aingeruak kantatzen
Diate aurrari,
Gloria zeruetan
Jaungoikuari.

Ai, aur ederra, etc.

Eta bakea
Gizon on guzientzat
Berriz lurrean.

Ai, aur ederra, etc.

Nai dutenak etorri
Betoz lasterka,
Musika zeruko au
Aditutzera.

Ai, aur ederra, etc.

Ta aekiñ batera
Gure borondate ona
Erakustera.

Ai, aur ederra, etc.

Goazen, ta bere oñetan
Umilki etziñik

Alabatuko degu

Biotz guzitik.

Ai, aur ederra, etc.

Modu onetan

Ez digu, ez, ukatuko

Deusere ezertan.

Ai, aur ederra, etc.

Eska zaiogun bada

Lendabizian,

Ez gaitzala arren utzi

Gere bizian.

Ai, aur ederra, etc.

Gurekin dela

Ez gera ezeren bildur,

Naiz dena dela.

Ai, aur ederra, etc.

Orain aur maite onekiñ

Ongi bagera,

Gero eramango gaitu.

Beraz batera.

Ai, aur ederra, etc.

Bere Aitagana,

Sekulako bizitza

Ta gloriara.

Alabiz.

(Se continuará.)



CURIOSIDADES BASCONGADAS,



El primer melodrama euskaro del siglo XVIII,

por la poetisa azcoitiana Luisa

(CONTINUACION).

BIGARREN OTSALDIA.

A R I A

Caridadearen edo egiazko amorioaren auan.

¡Au egun zoratzekoa!
 ¡Zer poz andia!
 ¡Zer atsegiña!
 Aiñ da poz nere gogoan,
 Zein da ez dakit zer egiñ.

Errezitatua.

Jaungoiko andiaren
 Esku indartsuak sortutako guziak,
 Eguzki eder, illargi, ta izar argiak,
 Zeruak, lurra, ta ichaso zabalak,
 Atozte, atozte ni-gana zeranak.
 Kanta ditzagun guzien artean¹
 Jaungoikoaren gloriak gaurko gabeen.
 Mendi portitzak, aariak bezela, danza:
 Munochoak salto, bildotschoen gisara,²
 Ibar, ta madura lau, baso ta chara;

(1) Psalm. 18.

(2) Psalm. 113.

Atozte, atozte, nigana, zeranak,
 Kanta dezagun guzion artean
 Jaungoikoaren gloria, gaurko gabea.
 Arbola orritsu berde, trebola fiñak,
 Larrosa, klabeiña, eta jazmiñak,
 Ibai zabal osiñez betetakoak,
 Erreka berrichucho itz jarioak,
 Itz batean Zerua bere argiakiñ,
 Lurra, ichasoaz, ta ur guziakin;
 Ibaiak, arbolak, mendiak, eta izarrak,
 Atozte, atozte nigana zeranak,
 Kanta dezagun guzion artean
 Jaungoikoaren gloria gaurko gabea.

Ariachoa.

Eguzki andia,
 Izar argia,
 Lastotan dautzan
 Aurcho orrek
 Sortua zera,
 Ta orren mendera
 Bizi artean
 Zaude zuek.

Ur aserrea,
 Mendi eskerkea,
 Lastotan dautzan
 Aurcho onek,
 Ain geldirikan
 Zuen tokian
 Leku batean
 Zauzka zuek.

Au ala izanik,
 Aur biurturik
 Gaurko gabea
 Dadukat nik,
 Gizon tristea,
 Penaz betea,
 Libratu dezan
 Pekatutik.

Nik ekarririk
 Gizon egiñik,
 Nik gaur bear det
 Kantatu,
 Bere etorrera
 Gizon artera;
 Eta ala zuek
 Lagundu.

(Se continuará.)



CURIOSIDADES BASCONGADAS.

El primer melodrama euskaro del siglo XVIII,

por la poetisa azcoitiana Luisa

(CONTINUACION).

IRUGARREN OTSALDIA.

ARTZAI KANTA.

Adirakia.

Guziak dakite nola aingeruak gaztigatu zieten Belen inguruko arzaiai munduaren Salbatzallea jaio zala estrabi batean.¹

Ebanjelioko pasarte onetatik, ta beste toki askotatik, nun J. K. gureak bere burua arzaitzat izendatzen duen, artu izanda otsaldi edo kanta onen irudidea; zeñean asmatzen dan, Belen inguruko arzaiak jakiñik Arzai berri bat eldu dala Abel echera, alkar arturik diazela ongi etorria ematera. Onetarako, Tirsis ta Filis lagun guztietatik gazteenai, ta bozik onenak dituztenai, enkargatzen diete, ongi-etorria guzien izenean ematea, zeintzuek au egiten dute kanta berri onetan; nun arza-yaren egokikilde edo *metaphora-ren* azpian estaltzen diran Jesu-Kristo-ren bizitza, ta gure Fedeko misteriorik nagusienak.

Arzai-korua.

Ola, goazen arzaiak,
Abel-echera,
Lagun berri bat
Ezagutzera:
Ta ongi etorri on-bat

(1) San Luc, cap. 20

Ematekotzat,
Guzien partez,
Tersis, zuk ta Filis-ek
kanta, kanta berri bat.

Tersis ta Filis-ek, biak.

Baña kontu zuek ere languntzeaz,
Estribillo batez guzien artean.

GUZIAK: Ordu onean.

Tersis ta Filis-ek.

¡Arzai zoragarria!
Ona emen gera,
Ongi etorri on bat
Zuri ematera:
Ez da arzairik gelditu
Inguru guzian,
Diranak emen datoz
Bada elkarren leyan.

Eranzuera.

Eranzun bada, lagunak,
Esan dezun bezela,
Jakiñ dezan, etortze onez
Nola gu poztu geran:
Ea bada, kanta laster.

GUZIAK. Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai.

BIAK.... Ea bada, kanta laster.

GUZIAK. Bai, bai, bai, bai,. bai, bai, bai.

Ongi etorri zerala,
Arzai pare-gabea,
Gurekiñ bearko dezu
Beti sekularean.

T. ta F.

Artaldeak bakarrik,
Chabolak zai-gabe,
Utzirik gatoz, baña
Ardurarik gabe:
Pistietatik dala

Naiz lapurretaik,
Zuk gordeko dituzu
Or zautzan lekutik.

Eranzun bada, lagunak, etc.

T. ta F.

Etsaya alperrik dabil,
Leoia bezela,
Inguruka, ustez, zerbait
*Artuko duela:*¹
Judako leoiaren²
Begiratzun batek,
Utzi erasoko dizka
Laster bazter abek.

Eranzun bada, lagunak, etc.

T. ta F.

Zu agertuarekiñ,
Egingo dute iges
Gure etsai guztiak
Emendik bildurrez:
Euren damu gaistoan
Ušatuko dira,
Ta inpernuetaraño
Ondatuko dira.

Eranzun bada, lagunak, etc.

T. ta F.

Arzaitzat zendozena
Ainziña gengian,
Lenagoko gizonai
Maiz aditurikan:
Ta aiñ maite artaldea
Izango dezula,

(1) S. Ped. Ep. 2. cap. 50.

(2) Apocalyp. c. 5.

Nonta azkenik bizitza
Kastauko zaitzula.

Eranzun bada, lagunak, etc.

T. ta F.

Ardiak duten gaitza
Kentzeko jakifik,
Ez dala arzaiaren
Odola lakorik;
Etorri ta, egun asko
Pasatu baño len,
Asiko zeradela
Ugariro fsurten.¹

Eranzun bada, lagunak, etc.

T. ta F.

Amodio andi onek
Parerikan ez du,
Arzai ona zerala
Erraz dezakezu:²
Orrek ardiak zaitzen
Ipiñiko zaitu,
Ta orrek aien ondoren
Ekarriko zaitu.

Eranzun bada, lagunak, etc.

T. ta F.

Bost bider ekustean,
Lagunak utzirik
Ardiren bat diala
Bide okerretik:
Galdu dediñ bildurrak,
Osta anchiturik,
Biurtuko dezu atzera

(1) Zirkunzizioa.

(2) S. Juan, cap. 10.

Lepoan arturik.¹

Eranzun bada, lagunak, etc.

T. ta F.

Ogei ta amairu urte
 Pena andiz beteak,
 Emango ditzu, abek
 Ondo gordetzeak:
 Ta aien kabuan gero,
 Esker ematea,
 Izango da gogorki
 Bizitza kentzea.²

Eranzun bada, lagunak, etc.

T. ta F.

Orduan kunpli dediñ
 Ainziñako itza;
 Arzaia jo, ardiak
 Banatuko dira:³
 Baña iru egun baru
 Zu pistuko zera,
 Ta bilduko dituzu
 Elkargana ostera.

Eranzun bada, lagunak, etc.

T. ta F.

Ala ere Aitagana
 Biurtu bearko dezu,
 Ta artalde maite ori
 Utzi naiko ez dezu:
 Baña zure amoreak
 Asmatuko bait-du,
 Nola, joanagatik,
 Aiekiñ gelditu.

Eranzun bada, lagunak, etc.

(1) S. Luc. cap. 15.

(2) Pasioa.

(3) S. Marc. cap. 14.

T. ta F.

Mirariatatikan¹
 Mirari andiena
 Izango da artarako
 Ikusiko dena:
 Bada ogiaren antzaz
 Ostia batean
 Geldituko zerade
 Zure art-aldean.²

Eranzun bada, lagunak, etc.

T. ta F.

Emen Zerutik iñoiz
 Alde egin bagerik,
 Egongo zera ardien
 Janari egiñik:³
 Orrela izango zera
 Beti aien aldean
 Ariketa munduak
 Dirauen artean⁴

Eranzun bada, lagunak, etc.

T. ta F.

Asko ez baliz bezala
 Mirari aiñ andia,
 Ipiñiko ere dezu
 Ordeko Artzaya:
 Zure ardiak ongi
 Gobernatu ditzan,
 Ta bide on-etatik
 Erabilli ditzan.

Eranzun bada, lagunak, etc.

-
- (1) Sto. Tom. Serm.
 (2) Eucaristia.
 (3) S. Juan cap. 12.
 (4) S. Math. cap. 28.
 (5) S. Juan, cap. 21.

T. ta F.

Arzai onen mendean
 Arkitze ez diranak
 Izan bearko dute
 Galduak dianak:
 Ta ala, arzai maitea,
 Zurekiñ nai degu,
 Ta argan zure ordea
 Ezagutzen degu.

Eranzun bada, lagunak, etc.

T. ta F.

Arzai onen mendean
 Bizi ta illko gera,
 Joateko zurekiñ
 Aitaren aldera;
 Arren lagun zakizgu
 Au ala kunplitzen,
 Gero goza zaitzagun
 Zeruetan. Amen:

Eranzun boda, lagunak, etc.

(Bukatuko da.)



CURIOSIDADES BASCONGADAS.



El primer melodrama euskaro del siglo XVIII,
por la poetisa azcoitiana Luisa.



(CONCLUSION).

Kopla jostalluak.

Ezagundu munduak
 Jesus jayo dena;
 Ain dago mudatua
 Ez dirudi lena:
 Len guzia zan pena
 Negar, naibageak;
 Ta oraiñ atsegiñ, gusto
 Algara, parreak.
 Gorroto, errierta,
 Auziak, ta gerrá,
 Gaitzak, gose, gezur, ta
 Intenzio okerrák:
 Juanik: ya ez dago
 Ezerren bildurrik,
 Ta ala dago mundua
 Zeru bat egiñik.

Abogadu, eskribau,
 Eta merioak,
 Mediku, barbero ta
 Botikarioak,
 Ez dira bear; ta argatik
 Izango da sarri
 Hipocrates gañoa
 Saguen janari.
 Ezpatak, lanzaak, eta
 Berte arma guziak
 Erositzen dituzte
 Errementariak:
 Ta alperrikan ez dediñ
 Galdu burni ura,
 Empleatzera diaz
 Gure probechura.

Achur, burdiñara ta
 Gorde biurturik,
 Nekazari langiñak
 Ongi giaturik;
 Emango digu lurrak
 Garia, ta artoa,
 Gaztaña, sagardoa
 Ta ardoa naikoa.

Garia ta artoa
 Merke ta ugariro,
 Gaztaña ta sagara
 Berriz urte-oro:
 Ta ardoak galdurikan
 Lengo malizia,
 Ez gaitu moskortuko,
 Edan zia-zia.

Ez da onezkero esango
 Gezurrrik batere,
 Egia esango dute
 Dendariak ere:
 Juan da emendik tranpa,
 Ta pede gaistoa,
 Ia ur bage saltzen da
 Tabernan ardoa.

Basa-arteko pistiak
 Malso-malso egiñik,
 Ez dute ya alkar jaten,
 Ta aiñ gichi gizonik:

Bat egiñik guziak
 Alkarren-artean
 Bizi dira etsai gabe
 Kontentuz bakean.

Otsoa, eta ardia
 Zelai zabalean
 Sarri ekusten dira
 Biak jolasean:
 Alberdanian chita
 Aizariarekiñ,
 Portugesa laztanga
 Gastelaubarekiñ.

Auñen bai dala egiaz
 Denbora urrezkoa,
 Ta ez len koplari zarrak
 Erausitakoa;
 Orañ aien amesak
 Egia sorturik,
 Ekusten ari gera
 Pozez zoraturik.

Baña kanta berri au
 Geicho luzatu da,
 Nere eztarri tristea
 Ia urratu da:
 Naiago det isildu
 Katarratu baño;
 Agur, nere jendeak,
 Urrengo urteraño.

